

ren erroak; eta 3.- absolutua den izpiritua, edergintzan, erlijioan eta filosofian gertatzen dena. Zuzenki *politikari dagozkionak, beraz, izpiritu objektiboaren azalpenetan eskaintzen dizkigu Hegelek. Azalpen horien ardatza, *askatasunaren aurrerakuntza da, izpiritu objektiboaren etorreran burutzen dena. Askatasunaren era ezberdinak aztertu ondoren, badela esaten du, naturaren eta apetaren eskakizunak gainditzen dituen askatasuna, ideialki ona eta zuzena denaren barrutian egiaztatzen dena; libertate hori da, zuzenbidearen, moraltasunaren eta etikotasunaren mailak gainditu ondoren berriro bere baitara datorrena. Etikotasunaren maila iritsi beharra da, zuzenbidearen legezko hustasuna eta moraltasunaren gehiegizko indibidualkeria gaindituz, horrela lortu ahal izateko bi alderdien batasun dialektikoa, familiaren, *gizartearen eta, batez ere, *Estatuaren bidez azaldu beharrekoa. Estatuak izango da, bada, zuzenbidea eta moraltasuna, gizabanakoa eta gizartea, familia eta komunitatea, beren bakoitz-izatean osotasun erabatekora bilduko dituena. Estatuak bizi den norbait dirudi, «herriaren izpiritua» (Volksggeist) berekin duena, zeinetatik Estatuaren osakai bakoitzak bizi behar baitu: «Herriaren izpiritu» honetan zertzen da izpiritu objektiboa, eta horrela iristen «munduaren izpirituarekin» (Weltgeist) bat egitera. Ideia hauek desarroilatu zituela eta, askok egotzi diote Hegeli, bera izan dela garaietako *totalitarismoren iturri. Zenbaitek uste du, gainera, *estatismo tiranikoen (ik. TIRANIA) iturri dela Hegelen metodoa bera. Beste askok, ordea, metodo hori hankaz gora alderantzki daitekeela uste dute, eta horrela metodo zientifiko bakarra bilakatzeko ekarri, politikari dagozkionak aztertu eta aldarazteko; adibidez, materialismo dialektikoaren (ik. MARXISMOA) sortzaile eta jarraitzaile gertatu diren hainbat egin eta egiten dutena lekuko.

Hegemonia

Propioki, Estatu baten nagusitasuna *Estatu-bloke batetan (adibidez, *NATOOn *USArena); zentzu zabalagoan, inoren zuzendaritza edozein *bloke elkartutan (adibidez, *proletalgoarena, *klase eta maila sozial zapalduen elkartasunean eta burrukan). Hegemonia, 1.- juridikoki finkatua izan daiteke ala ez, bere moduan; 2.- blokean bildutako *alderdien autonomia eta *berdintasun-printzipioa suposatzen du; 3.- *interes-elkartasunean oinarritzen da. Hegemoniarik ez da indarrez edo mehatxuz menperatutako inoren gain

nagusi izatea. Hegemonia kontzeptuak, kontzeptu gisa, harreman politikoei begiratzen die eta berez ez du menpetasun ekonomikorik adierazten; XIX. mendeaz gero, halere, eta *inperialismo modernoaren formetan bereziki, hegemonia ekonomikoak eta politikoak bategitera eta berdintzera jotzen dute.

Hegemonia hitza «hegemon» grekotik dator (**buruzagi**) eta Helendar Hirien Elkartearen buru egiten zuena izendatzen zen horrela: lehenik Sparta eta gero Atenas. Hegemonia moderna, Estatu gailen batek, apalagoei babes militarra eskaintzearen truke, abantaila politiko eta ekonomikoak gozatzean datza: hegemonia kontzeptuak, hortakoz, gero eta gehiago adiera militarra hartzen du. *Amerikako Estatu Batuak eta *SESB dira egungo bi potentzia hegemonikoak: harmamenduen norgehiagoketak eta *bizikidetasun bakesuaren tesiak bion konfrontu militar zuzeneko bat ezustekotsu bihurtu dutenez gero, burruka ideologikoak (ik. IDEOLOGIA) ere inportantzia gero eta gehiago irabazten du hegemoniaren aldeko norgehiagokan.

Joxe Azurmendi

BLOKEA: NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK; IMPERIALISMOA.

Helsinki konferentzia

conferencia de Helsinki / conférence de Helsinki

Osasun-kordonadura bat eratu nahi zuten Polonia, Lituania, Letonia eta Estoniak Errusia Sovietarraren inguruan eta honetarako bildu ziren Helsinkin (Finlandia) 1920.eko Urtrilaren 24ean. Asmo honek porrot egin zuen.

NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK.

Herder, Johann Gottfried

Artzain protestante baten semea, maisu eta eskoletako inspektore izan zen. Berak idatzitakoek, ordea, eskolen mugetatik landa ere erasanik izan dute. Natura osoa, bere burua mailaz maila gaindituz joan den etorrera gisa hartzen zuen; naturaren historiazko etorrera horren goreneko azken emaitza da gizakia. Gizateria munduratu geroztik ere, ordea, azken gabeko joaneran doa historia, beti ere etengabe aurreratzen, bere buruaz gero eta jabetzena-go. *Aurrerapen horren helburua, arrazoime-